Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Juan Migel Gorostiaga Artetxe Peke

Dima, Bizkaia (1939)



Aurkibidea

Biografia



1939ko abenduaren 12an jaio zen Dimako Agarre auzoan. Juan Gorostiaga Landajuela zen bere aita, Dimako Indusi auzokoa eta Basauriko Baskonian langile izandakoa; ama, berriz, Pilar Artetxe Larrabide zuen, Arteako baserritarra. Sei senidetan gazteena izan zen. Industriako lanetan jardun zuen, eta motorrak zein landa eremuko lanak izan ditu gogoko. Maria Begoña Zugazartaza Sagarna iurretarrarekin ezkondu zen, eta bi alaba izan zituzten.

Zintak

DIM-026

- **Proiektua**: Fondo partikularrak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gutierrez Gorostiaga, Martin
- **Data**: 2026-05-26
- **Iraupena**: 30 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Gutierrez Gorostiaga, Martin
- **Emalea**: Gutierrez Gorostiaga, Martin

Pasarteak

1. Haurtzaroko oroitzapenak

- **Erref**: DIM-026/002
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:01:17. **Bukatu**: 00:03:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Mutikotako oroitzapen batzuk ekartzen ditu Agarre auzoan. Baserriko komun bitxiak, burdin ura nondik edaten zuten, perretxikoak ez ziren gaur egun bezain ospetsuak… Horrez gain, eskola egunetako errutinaz ari da. Lagun baten etxean bazkaltzen zuen eta baserrira bueltatzean, lana topatzen zuen egiteke.

2. Txorienkumeak harrapatu eta saldu

- **Erref**: DIM-026/004

- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:07:24. **Bukatu**: 00:08:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:
Txorien txitak harrapatzen zituzten, gero saltzeko. Herritar pare bati ikaragarri gustatzen zitzaizkien Birigarro, zozo edota miruen txitak.

3. "Lukinka", animalia misteriotsua

- **Erref**: DIM-026/005
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:08:32. **Bukatu**: 00:11:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Natura » Fauna

Laburpena:
Etxe ondoko putzuan lehorteetan "lukinkak" agertzen ziren, anfibio erabat zatarrak. Hauetaz mintzo da gehien bat,. Amaieran klimari buruzko aipamentxo bat egiten du: lehengo klima urtaroetan banatuagoa zela iruditzen zaio.

4. Auzokideak, txarrak eta onak

- **Erref**: DIM-026/007
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:12:46. **Bukatu**: 00:15:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
Futbolean jokatzeagatik zelaia txikitzen zutelako haserretzen zen bizilagunaren inguruko kontuak dakartza gogora. Haren anaia ordea, pertsona aparta zela kontatzen du. Gezurrak esaten abila zen ordea: alemaniarren hegazkin baten zatiak zeudela errekan esan omen zien behin.

5. Bonbak lehertzen, jolasa balitz moduan

- **Erref**: DIM-026/009
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:15:49. **Bukatu**: 00:18:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Basoan, gerraostean geratu ziren obusak lehertzen zituzten, umeen denbora-pasa izango balitz bezala. Lehergailu bat hartu, egurrez inguratu, eta muino

baten atzean ezkutatzen ziren, bonbak lehertu arte. Gero, gurasoen haserrea jasan behar izaten zuten...

6. Armak jostailu gisa

- **Erref**: DIM-026/011
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:18:52. **Bukatu**: 00:22:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Dima ondoan, Ilunben, Gerra Zibilean eman zen borrokaz hitz egiten du. Borroka horren ostean, hainbat arma eta bonba geratzen ziren agerian. Beraiek, umeak oraindik, arma horiekin aritzen ziren jolasean. Etxera ere pistolak eramaten zituen, ezkutuan. Aitak ere isilean pistola txiki bat zuen.

7. Gerraosteko baserriko janaria eta edaria

- **Erref**: DIM-026/013
- **Iraupena**: 0:02:59. **Hasi**: 00:23:01. **Bukatu**: 00:26:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerraostean baserrian bizitzeak, janari aldetik abantaila asko ekartzen zituen. Lekaleak eta barazkiak nahi beste, okela, aldiz, gutxiago. Ardoa ere presente zeukaten oso, baita anis bezalako edariekin ohitura bitxiak zituen bere amak

8. Irakasleari derrigorrezko opariak egin behar

- **Erref**: DIM-026/015
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:27:15. **Bukatu**: 00:28:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:
Erdalduna zuen irakaslea. Hari egin beharreko opariei buruz mintzo da: urtean, solomo zati bat eta odolkiak . Zigorrak ezartzen zituen bestela. Ez dauka oroitzapen onik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-16

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com